

# Batzordeak Espainiako atunaren sektorea ikuskatu du

**Europako Batzordearen** Elikagaien Osasun eta Segurtasunaren Zuzendaritza Nagusia ([https://ec.europa.eu/info/departments/health-and-food-safety\\_es](https://ec.europa.eu/info/departments/health-and-food-safety_es))k ikuskaritza bat egin zuen Espainian, 2017ko urriaren 16tik 23ra bitartean. **Ikuskaritza horren helburua zen Espainiako atunaren sektoreko kontrol ofizialen funtzionamendua eta eraginkortasuna ebaluatzea**, baita izandako azken alertaren ondoren (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/atuna-fresko-saltzeko-iruzurrezko-erabileraren-ikerketa/>) agintari eskudunek beharrezko neurriak ezarri dituzten egiaztatzea ere.

Txostenean ondorioztatzen da zenbait neurri hartu direla elkarrekin egindako misioan identifikatutako puntuei aurre egiteko, batez ere lehengaien hautagarritasunari, kolore-aldaketari eta lotutako gehigarrien erabilerari dagokienez. Hala ere, ikuskaritza egin zitzaizen autonomia-erkidego guztiek ez zituzten neurri horiek aplikatu, batez ere baimendutako gehigarrien erabilera egokiari buruzko neurriak (*quantum satis*).

Erabilitako lehengaiak bermatzeko hartutako neurriak, hein handi batean, ekoizleen baieztapenetan oinarritzen dira. Ondorioz, lehengaiak -18 °C-tan izozten direla bermatzeko sistema ez da sendoa, agintariek ezin baitute egiaztatu hala egiten dela. Inportatutako lehengaiak dagokienez, EBren egungo eredu ziurtatuak ez du ahalbidetzen lehengaien hautagarritasun-irizpideak betearaztea.

Dena den, neurriak duela gutxi ezarri direla kontuan hartuta, ikuskaritzaz arduratu den taldeak adierazi du goizegi dela hartutako neurrien eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.

**Bukatzeko, txostenak zenbait gomendio ematen dizkie agintari eskudunei hautatutako gabeziak konpontzeko eta egungo kontrol-sistema hobetzeko.**

Txosten osoa ([http://ec.europa.eu/food/audits-analysis/audit\\_reports/details.cfm?rep\\_id=3971](http://ec.europa.eu/food/audits-analysis/audit_reports/details.cfm?rep_id=3971))